

# XEDAPEN OROKORRAK

## LAN ETA JUSTIZIA SAILA

### 1942

*56/2020 DEKRETUA, maiatzaren 5ekoa, zeinen bidez onesten baita Euskal Autonomia Erkidegoko Lanerako Jaiegunen Egutegi Ofiziala 2021. urterako.*

Bai Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 12. artikulua araberan eta bai Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartzeko urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikulua araberan, Gobernu honek eskumena du 2021eko lanegunak eta jaiegunak finkatzeko, betiere, urteak, gehienez ere, hamalau jaiegun izango dituela kontuan harturik.

Hortaz, eta bat etorritik lanaldia, lanaldi bereziak eta atsedenaldirik arautzen dituen uztailaren 28ko 2001/1983 Errege Dekretuaren 45. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin, zein indarrean baitago lanaldi berezietan buruzko irailaren 21eko 1561/1995 Errege Dekretuaren xedapen indargabetzaile bakarrean xedatutakoaren arabera, Lan eta Justiziako sailburuak proposatuta, aukera emanda Lan Harremanen Kontseiluari eta interesdun diren gainontzeko kontsulta-organoei entzuna izateko, eta behin Gobernu Kontseiluak 2020ko maiatzaren 5ean egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Lan-ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan, bi mila eta hogeita batgarren urtean, egun baliogabe, ordaindu beharreko eta ez-errekuperatzeko izango dira urteko igande guztiak eta honako jaiegun hauek:

Urtarrilaren 1a, Urteberri eguna.

Urtarrilaren 6a, Errege eguna.

Martxoaren 19a, San Jose.

Apirilaren 1a, Ostegun Santua.

Apirilaren 2a, Ostiral Santua.

Apirilaren 5a, Pazko Astelehena.

Maiatzaren 1a, Langileen Eguna.

Urriaren 12a, Espainiako Jai Nazionala.

Azaroaren 1a, Domu Santu Eguna.

Abenduaren 6a, Konstituzio Eguna.

Abenduaren 8a, Andre Maria Sortzez Garbiaren eguna.

Abenduaren 25a, Eguberri eguna.

2. artikulua.– 1.– Lan-ondorioetarako, izango dira, baita ere, egun baliogabe, ordaindu beharreko eta ez-errekuperatzeko, bi mila eta batgarren urtean, tokian tokiko jaietako bi egun gehienez

2020ko maiatzaren 8a, ostirala

ere; egun horiek Lan eta Justizia Saileko lurralde-ordezkariek zehaztuko dituzte, udaletako udalbatzek proposatuta, eta berdinak izan daitezke, edo ez, Lurralde Historiko bakoitzeko zenbait udalerritan.

2.– Udal bakoitzak bere proposamena egin eta dagokion lurralde-ordezkaritzari jakinarazi beharko dio hilabeteko epean, Dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Lan eta Justiziako sailburuari aginpidea ematen zaio behar diren xedapenak eman ditzan Dekretu honetan xedatutakoa aplikatu eta betearazteko.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 5ean.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Lan eta Justiziako sailburua,  
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.